| 9. BERDINTASUN SAILA | 9. ÁREA DE IGUALDAD |
|---|---|
| **9.1. DIRULAGUNTZAK GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEAN AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOAN DIHARDUTEN ELKARTEEI** | **9.1. SUBVENCIONES PARA ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN EL AMBITO DE LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES ENTRE MUJERES Y HOMBRES** |
| **1. Xedea** | **1. Objeto.** |
| Deialdi honetan arautzen diren laguntzak elkarteen funtzionamendurako, programa espezifikoak lantzeko edota elkartearen jardueraren xede diren taldeentzako zerbitzuak gauzatzeko emango dira. | Las ayudas reguladas en esta convocatoria se concederán tanto para el funcionamiento de las Asociaciones como para el desarrollo de programas específicos y/o servicios dirigidos a los colectivos objeto de la actividad asociativa. |
| Laguntza ekonomikoak diru laguntza gisa emango dira eta helburu orokorra hauxe izango da: helburuak betetzen laguntzea, ordezkatzen dituzten taldeei dagokienez. Diru laguntzek alor espezifiko hauek har ditzakete: | Las ayudas económicas adoptarán la forma de subvenciones y tendrán como objeto general el apoyo en el cumplimiento de sus fines con relación a los colectivos que representan. Las subvenciones podrán referirse a los siguientes ámbitos específicos: |
| - Elkartearen ohiko jarduera mantentzea. | - Mantenimiento de la actividad ordinaria de la Asociación |
| Kontzeptu honetan elkartearen administrazio eta antolaketa kostuak diruz lagunduko dira betiere diruz lagundutako proiektu eta jarduerak aurrera eramateko ezinbestekoak direnean eta adierazitako gastua eta egindako lanaren artean proportzioa mantentzen badu. | Dentro de este apartado se subvencionaran los gastos de administración y organización de la asociación, siempre y cuando sea imprescindible para la realización de la actividad o proyecto subvencionado y mantenga una proporcionalidad entre el gasto imputado y la labor realizada. |
| - Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren gaineko sentsibilizazio, prestakuntza, informazio eta zabalkunde ekintza espezifikoak. | - Acciones específicas de sensibilización, formación, información y divulgación de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. |
| - Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekin lotutako material eta baliabide espezifikoak lantzea. | - Elaboración de materiales y recursos específicos relacionados con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres |
| - Elkartearen jardueraren xede diren taldeei zuzendutako esku hartze programa espezifikoak lantzea. | - Desarrollo de programas específicos de intervención dirigidos a los colectivos objeto de la actividad asociativa |
| - Salbuespen gisa, Arrasaten sustraiturik dauden ikuskizunak, ospakizunak eta urteurrenak antolatzea diruz lagundu daiteke. | - Excepcionalmente, podrán subvencionarse la organización de eventos, celebraciones, aniversarios, que se consideren de arraigo demostrado en Arrasate. |

| | |
|---|---|
| - Diruz lagundu ahal izango da aukera berdintasunarekin lotutako prestakuntza ikastaroetan, mintegietan eta kongresuetan parte hartzea, baldin eta parte hartzaileak gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alorrean Arrasaten lan egiten duten taldeak edo talde horietako pertsonak badira. | - Se podrá subvencionar la participación en cursos de formación, seminarios y congresos, que tengan relación con la igualdad de oportunidades, a los colectivos o personas pertenecientes a los mismos que trabajen activamente en Arrasate en el ámbito de la igualdad real de hombres y mujeres. |
| Kontzeptu honetako diru laguntzak prestakuntza ikastaroen, mintegien eta kongresuen matrikulazio zenbatekora iritsi ahal izango dira gehienez ere, eta muga 100 €-koa izango da pertsonako eta urteko. | Las ayudas económicas en este concepto podrán alcanzar, como máximo, el importe de la matriculación de los cursos de formación, seminarios y congresos, con un límite de 100 € por persona y año. |
| **2. Onuradunak** | **2. Personas beneficiarias** |
| Oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzak Arrasateko udalerrian jarduerak egiten edota betetzen dituzten elkarteek eta beren zerbitzuak Arrasaten erroldatutakoei eskaintzen dizkieten elkarteek eskatu ahal izango dituzte. | Podrán solicitar las subvenciones que las presentes bases regulan, las asociaciones que desarrollan y/o atienden actividades en el ámbito del municipio de Arrasate o atienden a personas empadronadas en Arrasate |
| Dagokion erregistro publikoan izena emateko betebeharrari dagokionez, onuradunek deialdi honen oinarri-arau orokorretako 4. Artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte. | Las personas beneficiarias deberán reunir las condiciones exigidas en el artículo 4 de las bases generales de la presente convocatoria en cuanto a la obligatoriedad de inscripción en el correspondiente registro público se refiere. |
| Salbuespen gisa, eta oinarri-arau espezifiko hauetako 1. Artikuluaren azken atalaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan izena emateko baldintzatik salbuetsi ahal izango dira Arrasaten egiazki sustraiturik dauden ekintza eta ospakizunak antolatzen dituzten taldeak eta entitateak. | De forma excepcional, y de acuerdo con el último apartado del artículo 1º de las presentes bases específicas, se podrá eximir de la exigencia del requisito de inscripción en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco a los grupos y entidades que organicen eventos y celebraciones que se consideren de arraigo demostrado en Arrasate. |
| **3. Eskaerak** | **3. Solicitudes** |
| Interesa duten entitateek eskaera bereizia aurkeztuko dute, diru laguntza eskatzen duten proiektu edo jarduera bakoitzerako (ohiko jarduera barne). Eskaerak deialdi orokorrean (Oinarri-arau orokorrak) ezarritako inprimaki-ereduan aurkeztuko dira. | Las entidades interesadas presentarán una solicitud diferenciada para cada uno de los proyectos o actividades (incluida la actividad ordinaria) para los que solicita la ayuda económica. Las solicitudes se presentarán en el impreso-modelo establecido en la Convocatoria General (Bases Generales) |
| Ordenantzan eskatutako dokumentazioaz gain, Berdintasun sailari bidalitako eskaeretan honako hau jaso beharko da: | Además de la documentación solicitada en la Ordenanza, las solicitudes dirigidas a la unidad administrativa de Igualdad deberán incluir: |
| - Elkarteko bazkideen kopurua, Arrasatekoak eta beste herri batzuetakoak bereiziz. | - Número de personas asociadas, distinguiendo a las de Arrasate y de otras localidades. |

| | |
|---|---|
| **4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea** | **4. Unidad administrativa encargada de la tramitación** |
| Berdintasuneko administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak. | Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de la Igualdad. |
| **5. Eskaerak baloratzeko irizpideak** | **5. Criterios de valoración de las solicitudes.** |
| Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira, atal bakoitzeko hemen jasotzen diren puntuazioekin: | Para el cálculo de las ayudas reguladas en las presentes bases se aplicarán los siguientes criterios, con la puntuación que a continuación se recoge por cada apartado: |
| - Elkarteak erakutsitako ibilbidea, haren bolumena, ordezkaritza, eta egindako jarduera egoki moldatu den kolektiboaren eskarietara eta arazoetara: 25 punturaino. | - Trayectoria demostrada por la Asociación, su volumen, representatividad y la adecuación de la actividad desarrollada a las demandas y problemáticas del colectivo:  Hasta 25 puntos |
| - Eragina, onuradunak eta ekintzek xede duten eremuan –bereziki, Arrasaten– espero diren emaitzak; programan eta jardueran sor daitezkeen intereseko gauzak: 25 punturaino. | - Impacto, personas beneficiarias y resultados esperados de la acción en el ámbito al que se dirige y, en particular, en el municipio de Arrasate; actividades de interés que se puedan generar en el programa y actividad: Hasta 25 puntos |
| - Proiektuaren kalitate teknikoa (diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa, izaera berritzailea, etab.): 25 punturaino. | - Calidad técnica del proyecto (diseño, metodología, organización de recursos, carácter innovador, etc.): Hasta 25 puntos |
| - Elkartearen beraren ekarpena (giza baliabideak eta baliabide materialak) eta boluntarioen ekarpena jarduera egiteko: 15 punturaino. | - Aportación de recursos propios de la Asociación (humanos y materiales) y de personal voluntario para el desarrollo de la actividad: Hasta 15 puntos. |
| - Beste finantzabide batzuen presentzia: 10 punturaino. | - Presencia de otras fuentes de financiación: Hasta 10 puntos |
| Horietaz gain, honako ezaugarri hauek lehenetsi eta positiboki baloratuko dira: | Además de estos, se dará preferencia y se valorarán positivamente las siguientes características: |
| • Elkarteak, bere jarduerak burutzeko, Udalaren ekarpena ez ezik beste finantzabide batzuk ere bilatzeko egiten dituen ahaleginak. | • Además de la aportación del Ayuntamiento para la materialización de sus actividades, asociaciones que realizan esfuerzos para buscar otras vías de financiación. |
| • Hainbat jarduera, proiektu edo ekintza beste elkarte edo entitate batzuekin elkarlanean egitea, herriari benetako ekarpen aberats eta askotarikoa eginez. | • Realización de diversas actividades, proyectos o actos en colaboración con otras entidades o asociaciones, actividades que realizan una verdadera aportación enriquecedora y variada al municipio. |
| • Berdintasunaren irizpidea kontuan hartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuz eta sustatuz, eta, bereziki, emakumeen eskubideak bermatuz. | • Consideración del criterio de igualdad, impulsando y promoviendo la igualdad entre hombres y mujeres, especialmente, en la medida que se garantizan los derechos de las mujeres. |
| • Belaunaldien arteko ibilbidea eta transmisioa bermatzea eta elkartearen biziraupena | • Aquellas que garantizan la trayectoria y la transmisión entre las diferentes |

| | |
|---|---|
| ziurtatzea, bereziki beren lana herrian zabaltzen eta hedatzen dutenena (sozializazioa, belaunaldi berrien inplikazioa…). | generaciones y aquellas que intentan asegurar la supervivencia de la asociación, especialmente a aquellas que difunden y propagan en el municipio su labor (la socialización, la implicación de nuevas generaciones, …). |
| • Ingurumen ikuspegia bereziki baloratuko zaie baliabide, bitarteko eta egitasmoetan berrerabilera eta birziklatze irizpidea kontuan hartzen duten entitateei (kartelak, ekitaldiak…). | • Se valorará especialmente el punto de vista medioambiental a aquellas entidades que tengan presentes la reutilización y el criterio de reciclaje (carteles, actos,…) en los diferentes recursos, medios y proyectos. |
| Eska daitekeen gutxieneko puntuazioa: | Puntuación mínima exigible: |
| Edozelan ere, programa honetan jasotako diru laguntzak eskuratu ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte. | En todo caso, las propuestas deberán obtener un mínimo de 50 puntos para poder conseguir las subvenciones recogidas en el presente programa. |
| **6. Aurrekontua** | **6. Presupuesto** |
| Programa honen bidez deitutako diru laguntzen zenbatekoa 7.000 €-koa da, eta "1.1330.481.231.50.00- Berdintasuna-Dirulaguntzak" kontu sailaren kontura finantzatuko da. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 7.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.1330.481.231.50.00- Subvenciones Igualdad". |
| Aurrekontu kopurua ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko aurreko balorazio irizpideen arabera, aplikatuko da dagokion hainbatekoa, emandako guztiari dagokiona. | Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de las solicitudes según los criterios de valoración, se aplicará el prorrateo correspondiente al total de la concesión. |
| **7. Klausula gehigarria** | **7. Cláusula adicional** |
| Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa. | En todo lo no recogido expresamente en la convocatoria, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones del ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |